

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Ondarroako Udala**

Egitura-lanpostuetako aldi baterako enplegua egonkortzeko Ondarroako udaleko hiru udaltzain plaza lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdiaren oinarriak.

2020ko abenduaren 10eko 2020/1210 Alkatetza Dekretu bidez, Ondarroako Udaleko hiru udaltzain plaza lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdiaren oinarriak onartu dira, hurrengoak izanik:

Lehenengoa. — Xedea

2019ko abenduaren 18ko 2019/1462 zenbakidun Alkate Dekretu bidez, Ondarroako Udaleko 2019. urterako enplegu publikoaren eskaintza onartu zen; bertan 3 udaltzain plaza jaso ziren, lehiaketa-oposizio bidez hornitzeko.

1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duenak, bederatzigarren xedapen iragankorrean hurrengoa jasotzen du:

Bederatzigarren Xedapen Iragankorra. — Udaltzaingoko kidegoetako enplegua kontsolidatzeko hautaketa-prozesuak

1. Udalerriek, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen bosgarren aldaketaren ekainaren 27ko 7/2019 Legea indarrean jarri ondoren, behin eta salbuespezez, hautaketa-prozesuak egin ahal izango dituzte Udaltzaingoarean egitura-lanpostuetako aldi baterako enplegua kontsolidatzeko, kontuan hartuta zer-nolako muga aplikagarri dauden oinarritzko estatu-arauetan. Hautaketa-prozesu horiek lehiaketa-oposizioaren erakoak eta irekiak izango dira. Hor, baloratuko dira bai Udaltzaingoko postuetako esperientzia orokorra, bai deialdia egin duen Administrazioan emandako zerbitzuen esperientzia espezifiko, bereizi eta osagarria, hautaketa-prozesuaren deialdiko lanpostuen arabera. Lehiaketa-fasearen balorazioa ezin izango da izan hautaketa-prozesuan lortu daitekeen gehieneko puntuazioaren %40 baino handiagoa, euskarak merezimendu gisa duen balorazioa alde batera utzita.

Xedapen horren helburua da udaltzaingo kidegoan bitartekotasun-tasa murriztea eta enplegua egonkortzea. Ondarroako Udalean udaltzaingo kidegoan dagoen bitartekotasun-tasa kontuan hartuta, eta 2.019ko lan eskaintza publikoan jasotako 3 udaltzain plazak izaera estrukturala dutela ikusita, legeak ahalbidetzen duen lehiaketa-oposizioa gauzatzea erabaki da, bederatzigarren xedapen iragankorrean jasotako baldintzetan.

Plazak:

Oinarri hauetan jasotako plazak lanpostu zerrendako 3.3, 3.4 eta 3.6 kodea duten lanpostuei dagozkie eta baldintzak hurrengoak dira:

- Kidegoa: Udaltzaina.
- Mota: Funtzionarioa.
- Eskala: Administrazio berezia.
- Azpieskala: Zerbitzu berezia.
- Taldea: C1
- Lanpostu osakin maila: 20
- Berriazko osagarria: 16.787,21
- Hizkuntza-eskakizuna: 2.
- Gidabaimena: B.
- Baldintzak: Txandakotasuna.

**Bigarrenena. — Parte hartzeko baldintzak**

1. Prozeduran parte hartu nahi duten pertsonak, onartuak izateko, baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

- a) Aldez aurreko eskaera egitea.
- b) Espainiako nazionalitatea izatea.
- c) Gutxienez 1,65 metroko altuera izatea gizonek, eta 1,60 metrokoa emakumeek.
- d) 18 urte izatea eta 38 urte bete ez izana. Muga hori konpentsatu ahal izango da Euskal Herriko Poliziaren kidegoetan emandako zerbitzuekin.
- e) Batxilergoko titulua edo baliokidea izatea, edo goragoko beste edozein.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarrenaz aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan agertzen den baztertzeko osasun-taulan sartuta ez egotea.
- g) Dolozko delituagatik kondenatua ez izatea, administrazio publiko baten zerbitzuetik bananduta ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea, hargatik eragotzi gabe birgaitzearen onura aplikatzea, arau penalen eta administratiboen arabera.
- h) Eskatzailearen adierazpen bidez, armak eramateko konpromisoa hartzea, eta, hala badago- kio, armak erabiltzea.
- i) Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoren batean sartzeko hautaketa-prozeduratik kanpo ez egotea falta astunagatik edo oso astunagatik, salbu eta preskripzio-epearen baliokidea den aldia igaro bada, baztertzeko adierazpenaren datatik aurrera.
- j) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean ez egotea, indarreko araudiaren arabera, praktiketako funtzionarioaren izendapenak ondorioak dituen egunean.
- k) B motako baimena, turismoetarako, deialdiko plaza guztietarako eskabideak aurkezteko epearen azken egunean indarrean.
Arestian adierazitako baimenak indarrean egon beharko dute uneoro, eskatzen direnetik, gidatzeko eskubidea eten, kendu edo kendu gabe, administrazio-izae-rakoak edo judizialak izan, eta esleitutako puntu guztiak galdu gabe.
- l) 2. hizkuntza-eskakizuna edo hortik gorakoa izatea, edo hautaketa-prozesu honetan horretarako deitzen diren egiaztapen probak gainditzea. Hautaketa-prozesu honetako hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeako proben emaitzak argitaratzen diren egunean bete beharko da baldintza hori.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira aipatutako betekizunak.

3. Prozeduran parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dituzte aurreko atalean eskatzen diren baldintzak, j) eta k) idatz-zatietan ezarritako salbuespenarekin, eta karrerako funtzionario izendatu arte mantendu beharko dituzte, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente kategoriarekin, horiek egiaztatzeako prozedura-faseari kalterik egin gabe.

4. Hautaketa-prozeduraren edozein unetan, prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia barne, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak jakiten badu parte-hartzaileetako batetik ez dituela deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen, pertsona hori hautaketa-prozeduratik kanpo utziko da, aldez aurretik entzunda.

Hirugarrena. — Eskabideak aurkeztea***Aurkezpena eta epea***

1. Eskabideak Ondarroako udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Kanttoipe, 1, 48700-Ondarroa edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua ezarritako eran. Aurkezteko azken eguna baliogabea izanez gero, dagokion hurrengo egun baliodunean aurkeztu ahal izango da eskabidea.



Postetxeetan aurkeztutako eskabideak, bertan entregatu beharko dira, eskabideak aurkezteko puntu honetan ezarritako epea amaitu baino lehen. Eskabideak gutun-azal irekian egongo dira, postako funtzionarioak data eta zigilua jar ditzan beraietan. Modu horretan baino ez da ulertuko posta aurkeztu diren egunean sartu direla.

Hautagaiak eskabidean adierazi beharko dute oposaketa faseko ariketak zein hizkuntzatan egin nahi dituzten (euskaraz edo gaztelaniaz). Udalak onartutako euskara plana dela eta, oposaketa faseko ariketa bat euskara hutsean egingo da.

2. Eskabideak, behar bezala beteta, 20 egun balioduneko epean aurkeztuko dira, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Hautaketa-prozedura honetan parte hartzea borondatezkoa da, eta berekin ekarriko du izangai bakoitzak eskabidean berariazko eta zalantzarik gabeko baimena ematea probak eta ariketa psikoteknikoak egiteko, eta proba horien emaitza balorazio-faktore gisa erabiltzea onartzea, oinarri hauetan aurreikusitakoaren arabera.

Parte-hartzaileek emandako datuak hautaketa-prozedura honetan aurreikusitako helburuetarako baino ez dira erabiliko. Eskabideetan emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da. Fitxategi hori hautaketa-prozedura hau kudeatzera eta prozedura horretatik eratortzen diren aldi baterako kontratazio-zerrendak kudeatzera mugatuko da.

Datuen tratamendua, hirugarrenei lagatzea, eta datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera arautuko dira (2018ko abenduaren 6ko EAO, 294. zenbakia).

Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua aipatutako Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean aurreikusitakora egokituko da.

Fitxategi horren arduraduna Ondarroako Udala izango da.

3. Hautaketa-prozedura honetan parte hartzeko eskabideak aurkezten dituztenek onartzen dute beren datu pertsonalak oinarri hauetan adierazitako moduan eta xederako erabiltzea.

Interesdunak deialdian aurreikusitako bazterketa medikoen taulara egokitzen direla egiaztatzeko fitxategi hori legez aurreikusitako baldintzetan tratatu eta laga ahal izango da.

Hautatu gabeko pertsonen dagozkien datuak, hautaketa-prozedura amaitu ondoren, ezabatu egingo dira.

Laugarrena.— Izangaiak onartzea

1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ondarroako Alkateak onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda onartuko du, eta hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da. Behin-behineko zerrendan, baztertutako pertsona bakoitzari dagokionez, baztertzeko arrazoiak adieraziko dira, eta 10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak egiteko eta eskaerak dituen akatsak zuzentzeko.

2. Epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak onartu edo baztertu egingo dira onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtzen duen Ebazpenean. Ebazpen hori hemeritzegarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Aurreko zerrendetan, bai eta argitaratzen diren guztietan ere, parte-hartzaileen identifikazioa jasoko da, bai eta aleatorioki aukeratutako Nortasun Agiriaren 4 zenbaki.

Bosgarrena.— Hautaketa-sistema

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da: oposizio- eta lehiaketa-sistemak egingo dira, izangaien gaitasuna zehazteko eta haien arteko lehentasun-ordena finkatzeko.

Seigarrena.— Epaimahai kalifikatzailea

1. Oposizio-lehiaketako probak eta merezimenduak zehaztu, garatu eta ebaluatzeko, eta parte-hartzaileak hautatzeko, Epaimahai Kalifikatzaile bat eratuko da, 1/2020



Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onartzen duena eta uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren aurreikuspenen arabera. Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- 1.1. Epaimahaian epaimahaiburu bat. (AOT).
- 1.2. Idazkari bat. (hitza izango du, baina botorik ez).
- 1.3. Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Akademiak izendatutako ordezkari bat.
- 1.4. Langileen ordezkariak izendatutako kide bat.
- 1.5. Alkateak izendatutako 2 kide.
2. Hautaketa-organoak eta epaimahaiak: Ezaugarriak:
 - 2.1. Epaimahaiek garatu eta ebaluatuko dituzte hautaketa-sistema osatzen duten probak; zeregin horretan, autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozedura-ren objektibotasunaren erantzule izango dira, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko dute.
 - 2.2. Epaimahaiek edo hautaketa-organoek kide anitzekoak izan behar dute, eta inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezialitate-printzipioen arabera osatu behar dira, bai eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioaren arabera ere.
 - 2.2.1. Epaimahaikideak edo hautaketa-organoetako kideak beti izango dira kide norberaren izenean, hau da, ezin dira kide izan inor ordeztuz edo inoren kontura.
 - 2.2.2. Hauek guztiak ezin izango dira izan hautaketa-epaimahaikideak: hautaketa edo izendapen politikoko langileak, behin-behineko langileak, bi-tarteko funtzionarioak edo aldi baterako lan-kontratudunak, ezta azken bost urteotan enplegu publikoan sartu nahi zuten izangaiak prestatzen ibili direnak ere.
 - 2.2.3. Hautaketa-epaimahaikideek eta hautaketa-organoetako kideek ezin izango dute parte hartu, arrazoi pertsonal edo profesionalengatik edo bestelakoengatik, euren inpartzialtasuna zalantzan egon daitekeen kasuetan, ezta indarreko ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako egoeretan ere.
 - 2.3. Espezialitate-printzipioari jarraikiz, boto-eskubidea duten kide guztiek izan beharko dute sartzeko eskatzen den ikasketa-maila bereko edo goragoko titulazioa, eta, kideen erdiek, gutxienez, jakintza-arlo bereko titulazioa.
 - 2.4. Ordezkaritza orekatuaren printzipioari jarraikiz, justifikatutako ezintasunik ez badago, hautaketa-organoak orekaz eratuko dira, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonei begira. Ordezkaritza orekatutzat hartuko da baldin eta, lau kideetik gorako hautaketa-organoetan, sexu-etariko bakoitzak gutxieneko %40ko ordezkaritza badauka, eta, gainerakoetan, sexu biak ordezkaturik badaude.
 - 2.5. Epaimahaiak aholkulari espezialisten partaidetzaz baliatu ahal izango dira euren lanetan, hautaketa-prozesua osatzen duten proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari espezialista horiek aholkularitza eta laguntza teknikoa baino ez dute emango euren espezialitateen jardunaren gainean. Aholkulari horien jardunak ere objektibotasun-, inpartzialtasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak bete beharko ditu.
 - 2.6. Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak salbu, azken horrek ez baitu botorik izango Epaimahaiaren erabakiak bertan direnen botoen gehiengoz hartuko dira, eta, berdinketa izango balitz, epaimahaiburu diharduenaren botoak erabakiko luke.
 - 2.7. Ezingo dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa-prozesuetarako izangaiak prestatzeko lanetan jardun dutenak edo, aldi horren barruan, deialdiko lanpostuei dagokien funtzio-arlo bereko oposizioak prestatzeko zentzoren batekin batera nolabait lan egin dutenak.



- 2.8. Epaimahaiek ematen dituzten ebazpenak lotesleak izango dira funtzionarioak izendatzeko organo eskudunarentzat; hala ere, irregulartasun baliogabetzairenen bat hautemanez gero, lotespen horrek ez du eragotziko organo horrek ebazpenak berrikustea, administrazio-prozedura arautzen duten arauekin bat etorritz.

Hautaketa-prozesuan onartutakoen eta prozesutik baztertutakoen zerrendekin batera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkioen izenen zerrenda, Alkatetza-Presidentetzak haiek izendatu eta gero.

- 2.9. Kalifikazio Epaimahaiko kideek, egingo duten zerbitzua dela-eta, zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko arauetan aurreikusitako legezko kalte-ordainak jasoko dituzte.

Zazpigarrena. — Oposizioa

Oposizioa honako proba hauek egitean datza:

1. Lehenengo proba, bi ariketaz osatuko da eta, hautagaiak, oinarri hauen I Eranskinetako gaitegian azaltzen diren gaitetaz duten ezagutza aztertzea izango du helburu:
 - a) Lehenengo ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaila, bi kasu praktiko garatu beharko dira idatziz eta horietatik bat, gutxienez, euskeraz burutu beharko du hautagaiak. Proba hau 0 puntutik 60 puntura baloratuko da, eta gutxienez 30 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.
 - b) Bigarren ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaila, hautagaiak Gespol VI aplikazioa erabiliz kasu praktiko bat garatu beharko du. Proba hau 0 puntutik 60 puntura baloratuko da, eta gutxienez 30 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.
2. Bigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, herriaren ezagutza-proba, test motako 35 galderaz osatutako azterketa izango da eta edukiak zehazteko, II. eranskinetako gai-zerrendan jasotakoa hartuko da kontuan.

Test erako galdera-sorta bakoitzak lau erantzun-aukera izango ditu, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena.

Proba honetan, erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 jasoko du hautagaiak; aldiz, erantzun oker bakoitza 0,333 punturekin zigortuko da.

Proba hau 0 puntutik 75 puntura baloratuko da, eta gutxienez 40 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.

$$\text{HAP} = (75 \times (\text{EZU} - \text{EOK} \times 0,333)) / 35.$$

Hau da:

— HAP= Hautagaiak lortutako azken puntuazioa.

— EZU = Erantzun Zuzenak.

— EOK = Erantzun Okerrak.

3. Hirugarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila. Proba psikoteknikoa egingo da lanpostuaren profilerako eta bete beharreko eginkizunetarako izangaiak egokiak ote diren ebaluatze. Epaimahaia izendatutako teknikari batek egingo du proba. Proba hau 0 puntutik 80 puntura baloratuko da, eta gutxienez 40 puntu lortzen ez dituztenak automatikoki baztertuko dira.
4. Laugarren proba. Elkarriketa pertsonalak egin beharko dira lanpostuaren profilerako eta bete beharreko eginkizunetarako izangaiak egokiak ote diren ebaluatze. Epaimahaia izendatutako teknikari batek egingo du proba. proba hau gai edo ez gai bezala ebatziko da.
5. Bostgarren proba. Euskara proba, nahitaezkoa eta baztertzaila: proba hau ez dute egingo apirilaren 15eko Eusko Jaurlaritzako 86/1997 Dekretuan eta otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuak aldatutako 64/2008 Dekretuan, edo hau aldarazten duen araudiak, ezarritako ziurtagiriren bat egiaztatuta duten hautagaiak.



6. Seigarren proba, nahitaezkoa eta baztertzaila, gaitasun fisikoari buruzkoa. Ariketa hau gai edo ez-gai moduan ebartziko da. Deialdi honetako III. eranskinean deskribatzen diren hiru ariketak egitean datza. Gaitasunaren balorazio eranskin horretan zehazten diren baremoen arabera frogatu guztiak gaintzen ez dituen hautagaia baztertua izango da. Ariketa fisikoak egitearen gaineko erantzukizuna parte-hartzaileena bakarrik izango da. Ariketak egiteko, bestalde, kirola egiteko ekipamendu egokia ekarri beharko dute.

Zortzigarren. — Oposizioen proben garapena

1. Deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik bi hilabete igaro arte ezin izango dira probak hasi.

2. Lehenengo proba egiteko eguna, ordua eta lekua gutxienez egutegiko zazpi egun lehenago iragarriko dira; Alkatearen ebazpen baten bidez. Gainerako probak egiteko iragarkiak ere hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira, gutxienez 72 ordu lehenago, Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiaren bidez.

3. Epaimahai Kalifikatzaileak oposizioa osatzen duten probak eta ariketak zazpigarren oinarrian ezarritakoaz bestelako hurrenkeran egitea erabaki ahal izango du, bai eta egun berean ariketa bat baino gehiago egitea ere. Kasu horretan, proben eta/edo ariketen emaitzen argitalpenek deialdiko oinarrietan ezarritako hurrenkerari jarraituko diote. Proba eta/edo ariketa bakoitzaren emaitzak zazpigarren oinarriko ordenari jarraituz aurrekoa gaintu dutenei dagokienez bakarrik argitaratuko dira.

4. Epaimahaiaren deialdira agertzen ez direnak automatikoki baztertuko dira hautaketa prozeduratik, adierazitako egunean, orduan eta tokian nahitaezko probak eta/edo ariketak egiteko, baita ezinbesteko arrazoiengatik ere. Arau bera aplikatuko zaie nahitaezko edozein proba eta/edo ariketa egiten parte hartzen dutenei, proba eta/edo ariketa horiek egiten hasi ondoren.

Nahitaezko probaren batek ariketa bat baino gehiago baditu, ez agertzea edo atzeratzea ariketa horietako edozeini dagokiola ulertuko da.

5. Aurretik ezarritakoaren salbuespen gisa, eta hautaketa-probetan aukera- eta tratu-berdintasuna bermatze aldera, Epaimahai Kalifikatzaileak probak egiteko datak eta/edo tokiak egokitu ahal izango ditu, haurdunaldian edo erditze-aurreko edo erditu ondoko aldian egoteagatik arriskua duten emakumeen kasuan, baldin eta inguruabar horiek Epaimahai Kalifikatzaileari jakinarazten bazaizkio eta proba edo ariketa egin aurretik ziurtagiri bidez egiaztatzen bada.

6. Proba eta ariketetara indarreko nortasun-agiria, pasaporte edo gidabaimena eraman beharko da, eta Epaimahai Kalifikatzaileak uneoro eskatu ahal izango du agiri hori aurkeztea.

7. Proba baztertzaila bakoitza amaitzean, hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira hautaketa-prozeduran parte hartzen dutenek lortutako emaitzak, Epaimahai Kalifikatzailearen erabaki bidez, eta berariaz adieraziko da zer puntuazio lortu duten a la gai edo ez gai. Proba eta/edo ariketen emaitzak bi hamartarrekin argitaratuko dira.

Bederatzigarrena. — Lehiaketa

1. Lehiaketa-fasearen kalifikazioa oposizio-fasea gaintu duten pertsonen soilik aplikatuko zaie.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik hartutako merezimenduak baino ezin izango dira ebalatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen bederatzigarren xedapen iragankorrek dioena jarraikiz, Lehiaketa-fasea ez da baztertzaila izango, eta bertan lortutako puntuazioak ezingo dira kontuan hartu oposizio-faseko probak gaintzeko. Hortaz, balorazioa ezin izango da izan hautaketa-prozesuan lortu daitekeen gehieneko puntuazioaren %40 baino handiagoa, euskarak merezimendu gisa duen balorazioa alde batera utzita.



- 1) Lehiaketa-fasean, guztira 200 puntu emango dira merezimenduak baloratzeko, baremazio honen arabera:
 - a) Esperientzia espezifiko: Ondarroako udaltzaingoan, Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako agente gisa emandako zerbitzuak: 0,1625 puntu emandako zerbitzu-egun bakoitzeko, 195 puntu gehienez.
 - b) Esperientzia orokorra: Euskal Herriko udaltzaingoetan, Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako agente gisa emandako zerbitzuak: 0,020 puntu emandako zerbitzu-egun bakoitzeko, 5 puntu gehienez. Ez dira kontutan izango Ondarroako udalean Udaltzain gisa balioztatze aintzat hartutako zerbitzu egunak.
 - c) Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Batera- tuko C-1 maila: 25 puntu.

Egindako zerbitzuak eskabidean alegatu beharko dira, eta interesdunek dagokion toki-administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute (abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I. eranskineko eredu), Administrazio Publikoan Aurretiazko Zerbitzuak Aitorzteari buruzkoa.

Hamargarrena. — Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea eta euskararen ezagutza baloratzea

1. Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea

Prozesuan parte hartzen duten pertsonen hizkuntza-eskakizunak dituztela egiaztatu ahal izango dute agiri ofiziala aurkeztuz edo horretarako deitutako proba espezifiko bidez.

1.1. Agirien egiaztapena

Hautaketa-prozesu honetako hizkuntza-eskakizuna egiaztatze proba egin baino bi egun lehenago egiaztatu ahal izango dira agiriak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maila horien baliokideak diren titulazioak azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan (Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko buruzkoa) eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan (euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeko eta hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriekin egiaztatze salbuesteak buruzkoa) jasotzen dira.

1.2. Berariazko proba baten bidez egiaztatzea

Era berean, euskararen ezagutza egiaztatze proba egin baino bi egun lehenago arte, hautaketa-prozedura honetan parte hartzen duten pertsonen euskararen ezagutza dutela egiaztatze agiriak onartuko dira.

Proba hau edo horiek egiteko eguna, ordua eta lekua jendaurrean jarriko dira, Epaimahai Kalifikatzailearen Akordioaren bidez, hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako moduan.

Hamaikagarrena. — Oposizio-lehiaketan onartutako pertsonen behin-behineko eta behin betiko zerrenda

1. Betekizunak egiaztatzea

Horrela hautatutako pertsonen jatorrizko dokumentuak edo deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzak egiaztatzen dituzten kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte Ondarroako Udaleko Erregistroan, Epaimahai Kalifikatzailearen Akordioa argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean. Interesdunak eskatuta, eta ezinbesteko kausaren bat gertatuz gero, Ondarroako Alkateak epe hori luzatu ahal izango du, gehienez ere 10 egun balioduneko beste batez.

2. Baldintzak ez betetzea edo ez egiaztatzea

Ez da praktiketako funtzionarioik izendatuko aurreko zenbakian adierazitako epearen barruan, edo luzapenetik, hala badagokio, deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzeko buruzko dokumentazioa aur-



kezten ez dutenak, ez eta deialdian parte hartzeko edo hura aztertzeko dokumentazioa aurkezten ez dutenak edo medikuaren bazterketen koadroa egiaztatzen dutenak ere, baldin eta eskatutako baldintza edo betekizunen bat ez dutela ondorioztatzen bada. Era berean, beren jardun guztiak ondoriorik gabe geratuko dira, eta izendapenerako egon dakizkiekeen eskubide guztiak galduko dituzte; horrek ez du eragotziko, halaber, beren eskabidea faltsutzeagatik izan dezaketen erantzukizuna.

Hamabigarrena. — *Praktiketako funtzionarioen izendapena*

1. Hautatutako pertsonak behar bezala egiaztatu badute deialdiaren baldintzak betetzen dituztela, Ondarroako Alkateak izendatuko ditu praktiketako funtzionario, eta hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak egoera horretan jarraituko dute prestakuntza-ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatu arte edo hautaketa prozeduratik kanpo utzi arte.

2. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ezarriko da prestakuntza-ikastaroa noiz hasiko den.

Hamahirugarrena. — *Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia*

1. Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia nahitaezkoak eta baztertzailleak izango dira, banaka hartuta, eta horiek ez gaingitzeak hautaketa-prozeduratik kanpo geratzea ekarriko du, bai eta deialdi honetan aipatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Oinarritzko Eskalako agente kategorian sartzeko gaingiditu ez dituenak izan ditzakeen eskubide guztiak galtzea ere.

2. Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia ezin izango dira aldi berean egin, eta horietako bakoitzaren iraupena, ez eta metatutakoa ere, ezin izango da 30 hilabetetik gorakoa izan.

3. Prestakuntza-ikastaroa:

- a) Prestakuntza-ikastaroa ikasturte akademiko bat izango da, nahitaezkoa eta baztertzaillea, eta haren edukiak, ebaluatzeko eta gaingitzeko moduak eta iraupena lkasketa-planean eta aplikatu beharreko araudian zehaztutakoak izango dira.
- b) Prestakuntza-ikastaroko kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak argitaratuko ditu, hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako moduan.
- c) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak adieraziko du prestakuntza-ikastaroa gaingitzen ez dutenak baztertuta daudela.
- d) Prestakuntza-ikastarora ez sartzeak, ikastaroaren lehen egunean, automatikoki baztertuko du sartu ez den pertsona, salbu eta behar bezala egiaztatutako ezinbesteko kausaren bat gertatzen bada eta aldez aurretik eskatzen bada. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiari dagokio ezinbesteko kasua hautematea, eta berari dagokio dagokion ebazpena hartzea.

4. Praktikaldia:

- a) Prestakuntza-ikastaroa gaingitzen dutenek praktikaldia egingo dute beren jarduera-arloen arabera prestakuntza integrala lortzeko egokienak diren zentroetan edo bulegoetan, eta dagokion Polizia Kidegoko polizia-zerbitzuen egitura eta funtzionamendua bereziki ezagutuko dituzte.
- b) Praktikaldia hasi aurretik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak Ebazpena emango du, praktika-aldiaren iraupena, balorazio-sistemak eta prozedurak eta praktikaldiko destinoak eta horietan hasteko data ezartzeko. Ebazpen hori hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.
- c) Praktikaldiko kalifikazioak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak jakinaraziko ditu, hemeretzigarren oinarrian aurreikusitako moduan.
- d) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak adieraziko du praktikaldia gaingitzen ez duten pertsonak baztertuta daudela.

**Hamalauugarrena. — Hautaketa-prozeduraren behin betiko sailkapena eta karrerako funtzionarioen izendapena**

1. Praktikaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan, eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak proposatuta, Ondarroako Alkateak hautaketa-prozedura gainditu dutenak izendatuko ditu karrerako funtzionario.
2. Izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hamabostgarrena. — Praktiketako funtzionarioen araubide juridikoa

1. Praktiketako funtzionario gisa, sartu nahi duten kategoriako sailkapen-taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien baliokidea den ordainsaria jasoko dute, eta, praktikak lanpostu batean egiten badira, lanpostu horri esleitutako ordainsari osagarrietan gehituko da.

2. Praktiketako funtzionarioei Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren barneegiko araudia eta Barne Erregimeneko Erregelamendua aplikatuko zaie prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian. Era berean, diziplina-araubideko kasuetan, egitate hori ez bada irakaskuntza-diziplinaren falta soila, osagarri gisa, Euskal Autonomia Erkidego-ko Polizia Kidegoen diziplina-araubideko arauak aplikatuko dira.

3. Prestakuntza-ikastaroa edo praktikaldia gainditu ez izana edo ez-gai deklaratzeari, bai oinarri honen aurreko paragrafoan aipatzen diren arauen arabera larritzat edo oso larritzat tipifikatutako arau-hauste bat egiteagatik zehapen bat ezartzea ere, hautaketa-prozeduratik automatikoki kanpo uzteko arrazoi espezifikoak dira, bai eta prozedura horretatik eratorritako eskubide guztiak galtzea ere, Euskal Herriko Poliziaren Oinarriko Eskalako agente kategorian sartzeko.

Era berean, prestakuntza-ikastaroari aplika dakizkioken ebaluazio-irizpideekin bat etorritik, ikasketa-planean jasotako ikasgaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada ezinezkoa dela prestakuntza-ikastaroa gainditzea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak hura baztertzea proposatu ahal izango dio praktiketako funtzionario izendatu duen organoari, praktiketako funtzionarioari entzun ondoren.

4. Prestakuntza-ikastarora ikasketa-planean aurreikusitako gehienekoa baino denbora gehiagoz joaten ez bada, hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko da automatikoki, Barne Erregimeneko Erregelamenduari buruzko erregelamenduaren arabera ezinbesteko kausarik ez badago behintzat.

5. Prestakuntza-ikastarorik ez izatea dakarren edozein baimen edo lizentzia hartzeko eskaera Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian aurkeztu beharko da, eta aldez aurretik Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Prestakuntza Ataleko Udaltzaingoaren Arloko Burutzak baimendu beharko du, dagokion udalari buruzko araudiaren arabera. Zerbitzuaren beharren arabera lizentziak edo baimenak hartzeko, horiek existitzen direla ulertuko da, baldin eta derrigorrezko irakaskuntza-jarduera programatuta badago.

6. Praktikaldian hamabosgarren oinarriko 4.b zenbakian aipatzen den ebazpenean ezarritako epea baino epe luzeagoan ez bertaratzeak hautaketa-prozesutik automatikoki kanpo geratzea ekarriko du, ezinbesteko kausarik ez badago behintzat.

7. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiak ezinbesteko kasua dagoela ikusi ondoren, horrek praktiketako funtzionarioaren izendapena egin duen organoari proposatu ahal izango dio eragindako pertsonak ikasturte osoa errepikatu ahal izatea egiten diren hurrengo ekitaldietan, edo praktikaldi osoa errepikatu ahal izatea edo praktikaldia osatu ahal izatea, ezinbesteko inguruabarrak desagertu ondoren, betiere hala eskatzen badu.

8. Prestakuntza-ikastaroaren edo praktika-aldiaren kalifikazioa eten eginda geratuko da, baztertzeko arrazoiren bat gertatzen bada, harik eta hasitako baztertze-espedituta ebatzi arte.

9. Prestakuntza-ikastaroan edo praktika-aldian hautaketa-prozeduratik kanpo geratu diren pertsonen armamentua, dokumentazioa eta hornitutako ekipo mota guztiak itzuliko dituzte.

**Hamaseigarrena. — *Baztertzeko osasun-kasuen taula***

1. Ondarroako Udalak hautaketa-prozeduraren edozein unetan egiaztatu ahal izango du hautagaia ez dagoela Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarren ez aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan (2.1.f oinarria) agertzen den bazterketa medikoen taulan sartuta.

2. Hori alde batera utzi gabe, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian edo horiek amaitzean, praktiketako funtzionario izendatutako pertsonen behar adina proba mediko egin ahal izango zaizkie, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Erregelamendua onartzen duen Dekretua bigarren ez aldatzen duen otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan ezarritako osasun-bazterketen taulara egokitzen diren egiaztatzeko.

3. Oinarri honetan aurreikusitako Mediku-epaimahaiari seigarren oinarriko 2. eta 7. zenbakietan jasotako arauak aplikatuko zaizkio.

Hamazazpigarrena

Bigarren oinarriko 1.g) atalean ezarritako betekizuna egiaztatzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, parte-hartzaileek baimena ematen diote Ondarroako pertsonal teknikariari eskatzeko doloeko delituagatik kondenatuak izan ez direla eta Administrazio Publikoaren zerbitzutik bereizi ez direla egiaztatzen duen ziurtagiria, eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

Baimen hori idatziz ematea eta izangaiak sinatzea aukeratze-prozesuko edozein momentutan eskatu ahal izango da.

Hamazortzigarrena. — *Egiteke dagoen prozedura penala edo administratiboa*

1. Hautaketa-prozedura honetan parte hartzen duten pertsonen doloeko delituagatik prozedura; edo administrazio publikoetako kidegoren bateko zerbitzutik kentzeko prozedura; edo funtzio publikoetan aritzeko gaitasunik gabe uzteko prozedura baten parte badira, hautaketa-prozeduran onartuak izateko, bertan jarraitzeko edo dagokion kategorian sartzeko honako baldintza hauek bete beharko dituzte: prozedura horietan kondena edo banatzerik ez izatea.

2. Aurreko oinarrian aipatutako alderdiak edo interes berezitzat jo daitezkeen beste batzuk egiaztatzeko, Pertsonal Teknikariak zinpeko aitorpena eskatu ahal izango die pertsona horiei hautaketa-prozeduran dauden bitartean.

Hemeretzigarrena. — *Argitalpenak*

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 45.1.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Erregistroan kokaturiko iragarki-ohola ezartzen da hautaketa-prozesuak osatzen dituzten egintzen ondoriozko argitalpenak komunikatzeko bidetzat. Halaber, Ondarroako Udalaren webgunean lortu ahalko da oinarriak, haien deialdiak eta, oro har, Epaimahaiaren jardura eta ebazpenei buruzko informazioa (www.ondarroa.eus). Aipatutako bideak erabiliz ematen den informazioak ez du inola ere ordeztuko indarrean den legediak, aldizkari ofizialen eta udalen iragarki-oholen bidez, ezartzen dituen komunikazio eta argitalpenak. Osterantzean, Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldiak dagokien egintza administratiboak indarrean dagoen araudiak agintzen duena jarraituz argitaratuko dira.

Hogeigarrena. — *Errekurtsoak*

Deialdi hau, haren arauak, eta deialdiak berak zein Epaimahaiaren jardunak eragin ditzakeen administrazio egintzak aurkaratu ahalko dituzte interesdunek, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legean xedatutako kasuetan eta moduan.

Ondarroan, 2020ko abenduaren 10ean. — Alkatea, Zunbeltz Bedialauneta Ibaibarriaga

**I. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****GAI KOMUNAK (LEGEAK HALA AGINDUTA)**

1. Eskubideak eta askatasunak Konstituzioan: oinarrizko eskubide eta betebeharrak (EKren 10.2 artikulua)
2. 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: herritarrek administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubide orokorrak. Administrazio-erregistroak.
3. Administrazio-zuzenbidearen iturriak: Legea: kontzeptua eta motak. Erregelamendua: erregelamenduak egiteko ahalaren titulartasuna eta mugak. Arauen arteko hierarkia. Legezketasun-printzipioa administrazio publikoan.
4. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea: administrazio-egintza: alderdi orokorrak. Eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio-isiltasuna. Interesdunak. Administrazio-prozeduraren faseak. Egintzak berrikustea.
5. Euskal Herriko Estatutuaren Atariko Titulua.
6. Udalerria: lurraldea eta biztanleria. Antolaketa. Eskumenak. Araubide bereziak.
7. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa. Administrazio publikoetako organoak: administrazio-organak eta eskumena. Administrazio publikoetako kide anitzeko organoak: funtzionamendua. Parte ez hartzea (abstentzioa) eta errefusatzeta.
8. Toki-erakundeen oinarriak: ondasunen kontzeptua, toki-erakundeen ondarea. Sailkapena. Araubide juridikoa. Toki-ogasunak: diru-sarrerren sailkapena.

GAI ESPEZIFIKOAK

1. Giza Eskubideak: Giza Eskubideen alderdi orokorrak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Giza Eskubideak Babesteko Europako Sistema.
2. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: arauaren objektua eta xedea. Printzipio orokorrak. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.
3. Euskal Herriko Poliziaren Legea: polizia-jarduera kontrolatzeko mekanismoak.
4. Polizia-bitartekaritza I: 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: eskumenak (25. artikulua). Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea. (25.1.i) artikulua).
5. Bitartekaritza poliziala II: bitartekaritza motak. Bitartekaritza-ereduak. Bitartekartzaren faseak.
6. 2012/29/EB Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko urriaren 25ekoa, delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparru-erabakia ordeztzen duena: 12. artikulua: bermeetarako eskubidea, justizia erreparatzaileko zerbitzuen testuinguruan.
7. 4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena: (15. artikulua) Justizia leheneratzaileko zerbitzuak.
8. Euskadiko justizia leheneratzailearen zerbitzurako erakunde arteko koordinazio-protokoloa.
9. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa. Xedapen orokorrak. Zehatzeko ahalaren printzipioak. Herri-administrazioen ondare-erantzukizuna.
10. Zigor Kodearen Atariko Titulua. Zigor-bermeak eta zigor-legearen aplikazioa.
11. Delituak (ZKren 10.etik 18.era bitarteko artikulua).
12. Erantzukizun kriminaletik salbuesten duten arrazoiak (ZKren 19. eta 20. artikulua).
13. Erantzukizun kriminala arintzen duten inguruabarrak (ZKren 21. artikulua).
14. Erantzukizun kriminala larriagotzen duten inguruabarrak (ZKren 22. artikulua).



15. Delituen erantzukizun kriminala duten pertsonak (ZKren 27. artikulutik 30.era).
16. Giza hilketa eta horren formak. Lesioak. Askatasunaren aurkako delituak. Torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delitu batzuk. Sexu-askatasunaren aurkako delituak. Sorospen-eginberrak ez betetzea.
17. Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak.
18. Bide-segurtasunaren aurkako delituak.
19. Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra: aplikazio-eremua (atariko titulua):
 - I. 970/2020 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra (azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra (abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartua) aldatzen dituen, trafikoko hiri-neurriei dago-kienez.
20. Bide Segurtasunari buruzko Legea: I. eranskina, oinarritzko kontzeptuak, artiku-luak: 1etik 9ra, 12tik 24ra eta 54tik 73ra.
21. Bide Segurtasunari buruzko Legea: arau-haustak (V. titulua, I. kapitulua).
22. Bide Segurtasunari buruzko Legea: zehapenak (V. titulua, II. kapitulua).
23. Bide Segurtasunari buruzko Legea: erantzukizuna (V. titulua, III. kapitulua).
24. Bide Segurtasunari buruzko Legea: zehapen-prozedura (V. titulua, IV. kapitulua).
25. Bide Segurtasunari buruzko Legea: zirkulazioko jokabide-arauak (II. titulua, I. kapitulua).
26. Bide Segurtasunari buruzko Legea: puntuak galtzea dakarten arau-haustak. (II. eranskina).
27. Bide Segurtasunari buruzko Legea: gidatzeko baimenak (IV. titulua, II. kapitulua):
 - I. 971/2020 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, maiatzaren 8ko 818/2009 Errege Dekretuaren bidez onartutako Gidarien Erregelamendu Orokorra al-datzen duena.
28. Zirkulazio-istripuak: kontzeptua eta istripu-motak. Udaltzaingoaren jarduerak: ikerketa, txostena, atestatuak eta eginbideen praktikak. Alkoholaren, estupefazianteen eta antzeko beste substantzia batzuen eraginpean gidatzea: Poliziaren jarduketa horien kontrolean
29. Eraikinen ebakuazioa: autobabes-planen hastapenak. Gertakariari erantzutea. Gutxieneko jokabide-jarraibideak. Okupazio handiko eraikinak. Larrialdi-plana.
30. Lehen sorospenak: lesioen lehen eta bigarren mailako balorazioa. Bihotz-birike-tako bizkortzea. Aire-bideen buxadura. Odoljarioak. Erredurei arreta orokorra ematea.
31. 170/1994 Dekretua, maiatzaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Ki-degoen Diziiplina Araubidearen Erregelamendua onartzen duena: diziiplina-prozedurak: 24. artikulutik 62.era.
32. Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza.



II. ERANSKINA

HERRIAREN EZAGUTZAREN GAI ZERREDA

1. Kale izendegia.
2. Auzoak
3. Udalaren egituraketa
4. Udaleko Arlo buruak eta erantzukizunak.
5. Udalaren baliabideak
6. Geografia eta historia.
7. Baserriak eta mendiko bideak
8. Ibaiak eta errekek

**III. ERANSKINA****GAITASUN FISIKOAREN PROBA****ABDOMINALAK****ARIKETAREN DESKRIBAPENA**

Ahoz gora, zangoak batera eta erdi bilduta, eskuak garondoan gurutzatuta eta beste lagun batek oinei eutsita. Jesarrita, hautagaiak enborra ezkerantz jiratu eta eskuineko ukondoarekin ezkerreko belauna ukitu behar du. Hasierako jarrera hartu eta ukondoekin behea ukitu behar du. Hautagaia eseri egingo da eta gorputz-enborrari eskuinerantz eraginda, eskuineko belauna ukitu behar du ezkerreko ukondoaz. Hasierako posturara itzuliko da. Ariketa hau ahal hainbat aldiz egin beharko du minutu batean.

FROGA GAINDITZEKO BAREMOA

Gizonak		Emakumeak	
Denbora	Errepikapenak	Denbora	Errepikapenak
1'	20 edo gehiago	1'	15 edo gehiago

BESOAK FLEXIONATZEA**ARIKETAREN DESKRIBAPENA**

Oinak perpendikular eta oin-puntak lurraren gainean, eskuak markagailuaren parean eta besoak, goiko aldea eta zangoak luzatuta, flexioak egingo dira besoekin, markagailua bularrarekin ukitu arte. Lurra ezin da gorputzaren beste atal batekin ukitu. Besoak luzatzean ezingo da egin orekatze-mugimendurik, ez gorputz-enborrarekin ez eta aldakekin ere. Zangoei, aldakei eta gorputz-enborrari zuzen eutsi beharko zaie. Ondo egindako flexioak baino ez dira zenbatuko. Ariketa hasi eta gero ezin izango da atsedetik hartu.

FROGA GAINDITZEKO BAREMOA

Gizonak		Emakumeak	
Denbora	Errepikapenak	Denbora	Errepikapenak
1'	20 edo gehiago	1'	15 edo gehiago

800 METROKO LASTERKETA**ARIKETAREN DESKRIBAPENA**

Hasierako postura: irteera zutik egingo da.

FROGA GAINDITZEKO BAREMOA

Gizonak	Emakumeak
4'20" edo gutxiago	4'25" edo gutxiago

**ESKAERA ORRIA**

DEIALDIA Ondarroako Udaleko 3 udaltzain plaza betetzeko deialdia	ESPEDIENTE ZENBAKIA C/ 1397
---	--------------------------------

Eskatzailea

Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	
NAN		Jaioteguna	
Emaila			
Helbidea			
Herria	P.K.	Probintzia	Telefonoa

Eskatzaileak, eskaera honetan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela AITORTZEN DU.

Sarrera erregistroaren zigilua

Eskatzailearen sinadura	
Ondarroan,	

Lan esperientzia. — Udaltzain-agente gisa Herri Administrazioan eskainitako zerbitzuak

Herri administrazioa	Iraupena

Hizkuntzak. — Eransten diren kopiak

Euskara	
---------	--